

35 Miatze-jarduera

1. Adierazi zein esaldi esango lituzkeen tertulia-gidariak eta zein solaskideek.



- 1. Olatz, Josu eta Unai, esango diguzue guztioi zer harreman duen protagonistak Albertorekin?
- 2. Zer pentsatzen duzue Intik dioenaz?
- 3. Bai, 3. orrialdean narratzaileak pertsonaia berri bat aurkezten digu irakurleoi, oso modu interesgarrian. Pertsonaia hain interesgarriak ez du gutxiago merezi.
- 4. Joanesek adierazi duena berreskuratuz, zer pasartetan topatu duzue zuek hori berresten duen aipamenen bat?
- 5. Lilik esan duen moduan, irakasle-ikasle arteko harremanak gailentzen dira nobela honetan. Hala ere, ezkutuko maitasun-istorioak gure baitako hesi guztiak hausten ditu; ni, behintzat, horrekin geratu naiz.
- 6. Barkatu, Iban, zer diozu zuk?

Tertulia-gidariak esango lituzkeenak	Solaskideek esango lituzketenak